

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAGRANGO UDALA

#### Behin betiko onestea 2022ko aurrekontua

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.3 artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 2022ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da, honela laburtuta, kapituluka:

#### GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	AZALPENA	HASIERAKO KREDITUAK
1	LANGILEEN GASTUAK	82.159,66
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA	194.944,62
3	FINANTZA GASTUAK	500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	36.050,00
5	KREDITU OROKORRA ETA AURREIKUSI GABEKO BESTE BATZUK	0,00
6	INBERTSIO ERREALAK	157.556,07
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	0,00
9	FINANTZA PASIBOAK	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>463.835,58 €</b>

#### SARREREN EGOERA

KAPITULUA	AZALPENA	HASIERAKO KREDITUAK
1	ZUZENEKO ZERGAK	86.647,39
2	ZEHARKAKO ZERGAK	10.000,00
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK	9.650,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	155.542,15
5	ONDARE BIDEZKO DIRU SARRERAK	60.650,00
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	141.346,04
8	FINANTZA AKTIBOAK	0,00
9	FINANTZA PASIBOAK	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>463.835,58 €</b>

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, udal honek onartutako lanpostu zerrenda argitaratzen da, iragarki honen I. eranskin moduan.

Erabaki honen aurka, zeinak udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onesten baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzibideari ekin baino lehen, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke udalbatzari, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta hilabeteko epean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lagrán, 2022ko maiatzaren 13a

*Alkatea*

**JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ**

## 1. ERANSKINA

### KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

#### A) Gaikuntza nazionalako funtzionarioak.

Lanpostua:	Idazkari-kontuhartzailea
Lanpostu kopurua:	1
Atxikipen lekua:	Udaletxea
Administrazio egoera:	aktiboan
Betetzeko era:	Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen (aurrerantzean EPOE) testu bateginaren 78. artikulua eta martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 18.1 artikulua
Eskala:	Gaikuntza nazionala
Titulazioa:	Lizentzia
Taldea:	A1
Maila:	21
Berariazko osagarria:	7.239,41 €
Hizkuntza eskakizuna	3
Derrigortasun data:	2020ko abenduaren 31
Destinoa:	Lagrango, Haraneko eta Añanako udalen elkartea
Dedikazioa:	% 40

Lanpostua:	Administrari laguntzailea
Lanpostu kopurua:	1
Atxikipen lekua:	Udaletxea
Administrazio egoera:	Aktiboan
Betetzeko era:	EPOEren 78. artikulua
Eskala:	Administrazio Orokorra
Titulazioa:	EPOEren 76. artikulua
Taldea:	C2
Maila:	11
Berariazko osagarria:	11.031,59 €
Hizkuntza eskakizuna:	2
Derrigortasun data:	Derrigortasun datarik gabe
Destinoa:	Lagrango Udala
Dedikazioa:	Osoa